

ON JAIME KEREXETA'REN GUTUN BAT

On Jaime adiskide kutunarengandik aspaldi jasotako eskutitz bat aurkeztu nai nieke gaur nere irakurlea laguntza eske. Ona, jarraian, eskutitz orren mamia:

"Latiegi adiskide:

"Gaur, igandea dan ezkeru, nasai-nasai, barriru be "Euskerazaintza" aldizkari-ko zure idazlana irakurri dot (XXVIII). Eta 27'garren orrial dean, beeko 6'garren lerroan "... Naparroa'ko urian eta Gipuzkoa'ko Olaberri'n..." idazten dozu. Eta nire zalantza: Naparroa'ren eta Gipuz koaren azkeneko "a" ori (artikuloa ete-da, Donostia, Azpeitia eta aberrena danez. "...Donosti'ko seme-bati..." Donostiarra eta ez Donostiatarra (XXVII, 26). Egia. Baiña besteona ere artikuloa ba'da (zergaitik ez Naparro'ko eta Gipuzko'ko? Donostia'ko semea "donostiatarra Ez danez, Gipuzkoakoa be Ez "gipuzkoatarra", donostiarra eta gipuzkoarra baiño. Barriru esan: zalantzan jartzen nozu, eztabaidan ez".

(Irakurleok, Euskerazaintzako lagunok, zuen danon laguntza bear dut On Jaime'ri erantzuteko. Naparroa eta Gipuzkoa itzen azkeneko "A" ori artikuloa ote da? Nik ordea ez dut sekulan "Naparro'n" eta "Gipuzko'n" ez irakurri ez entzun; beti Naparroa'n eta Gipuzkoa'n. Naparrek ordea, Aralar-pekoek beintzat, ez dute Naparroa'ko esaten Naparro'ko baizik: "Naparro'ko jendeak", "Naparro'ko mendiak". Baiñan ez dizute Naparro'n esango: "mendi ori Naparroa'n dago" esango dizute, eta ez "mendi ori Naparro'n dago". Inork, berriz, ez dizu "Gipuzko'ko mendi"rik esango. "Gipuzkoa'ko mendiak" baizik.

"OA" atzizki-duten toki-izenak aski ugari ditu gure euskerak: Nik orain bat batean oroitzen ditudanak, Zuberoa, Astarloa, Mutiloa, Larrinoa, Ganboa, Arbeloa, Bengoa, Garaioa, Bakaikoa... Zuek, irakurleok, ezagutuko dituzute geiago. (Izen oietan nola artzen du jendeak azkeneko "A" ori? Atzizkitzat? ala itza beraren gorpuzkitzat?


Itzuli gaitezen On Jaime'rengana:

"Begira: Euzkadi'ko oiñetxeai eta armarriai buruz idazlan luze bat egiten diardut, erderaz. Eta, jakiña, milla bidar agertzen dira Donosti, Ondarrabi, Errenderi, Azpeiti, Azkoiti, Getari, Alegi eta alakoak. Beraz, aitaturiko izenok, erderazko pasartean (testoan) idaztean (zelan jarriko zeukez zuk"?

Nola jarriko nituzkean nik? Ea, bá, Jaime, nere jardunkera atsegiña gertatzen zaizun:

Frantzeraz, Zaragoza, "Saragosse" idazten da. Inghlanderaz, Itali, "Italy". Gazteleraz, London, "Londres". Portugaleraz, New York, "Nova Yorke". Doixkeraz, España, "Spanien", eta euskaldunok euskeraz France, "Frantzi" esan eta idazten dugu.

Ele bakoitzak bai bait du, —baita gure euskerak ere— atzerrietako izenak bere senaren erara jaso, esan, eta idazteko eskubide sagaratu. Orregaitik, nik, **gazteleraz, Azpeiti**, "Azpeitia" esan eta idazten dut. Nere frantzera baldarrez, Naparroa, "Navarra", eta inglendera baldarragoz, Bizkai "Biskay". Beste izkuntzei, nere euskeraren eskubideentzako eskatzen dedan eraspena gordetzera bearturik nagoala iruditu izan zait b beti.



Gero Euskaltzaidiari artutako itz-zerrenda bat eskeintzen dit On Jaimek:

ALEGI. Tolosa'ren alboan dagoan eta gazteleraz "Alegria de Oriá" esaten zaion erri ortan jaiotakoari, ALEGIAR esateko agin du ornen du Euskaltzaindiak. Agindu makurra benetan, eta parragarria, Euskaltzaindi gaixo orrek emandako geienak bezala. Sekula santan ez bait zaio Alegi'n jaiotako bati, ALEGIAR, ALEGIARRA esan, ALEGITAR eta ALEGITARRA baizik.

ARRATI. "Pero nadie dice Arrati, sino Arratiya, A-rra-ti-a, Arrat!a", dio On Jaimek, une batez euskera utzita gaztelerara joz.

Nere ustez, Jaime, Arrati, ARRATE da; zuk beste inork baino obeki dakizun bezala, nekerik txikienaren legearen eraginez, euskeraz "E" oso errez biurtzen bait dugu "I".

Izen geiago ere badamaizkit On Jaime'k. "Euskerazaintz"aren urrengo zenbakian aztertuko ditudan izenak, gaur iraduz nabil b, irarkolara garaiz iritxi nairik.

Alare aipatu al dut zenbaki ontan On Jaime'k eskuetara damaigun onako arazo txit garrantzitsu auxe:

Nongotasuna eta norentasuna adierazten diguten "AR" eta "TAR" atzizkiak erabiltzerakoan (zergaitik sortzen zaigu alako ezberdintasun nekagarria?

Zerdalata ain goxo gure belarrientzako DONOSTIARRA eta alderantzizain zakar ALEGIARRA?.

Ez dut erantzun ziurrik-eta bearrezkoa dut zuen Laguntza.

Agur irakurle: jarraituko dugu gai au bera lantzen datorren zenbakian.